



Deialdia	Convocatoria
<p data-bbox="231 461 804 495"><b>1. Xedea</b></p> <p data-bbox="231 501 804 1032">Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauen berri ematea: Tolosako hiri-lurzoruan <b>bizitegi-eraikin kolektiboak</b> (ez familia bakarreko edo biko etxebizitzak eta etxebizitza atxikiak) <b>birgaitu, sendotu zein irisgarritasuna hobetzeko eta etxebizitzak egokitzeko dagoeneko egindako obrak diruz laguntzeko</b> lehiarik gabeko konkurrentziaren arabera ematen diren <b>dirulaguntzak</b>. Obrek izan behar dute legez eraturako jabeen erkidegoek eta pertsona fisikoek (jabeak, gozamen-dunak edo errentariak edota etxebizitzarekiko beste edozein gozamen-titulu dutenak) eginak.</p> <p data-bbox="231 1122 804 1536">Dirulaguntzaren helburua da diruz laguntzea Tolosako hiri lurzoruan dauden bizitegi-erakinak eraberritzeko eta igogailuak ere instalatzeko egindako sustapen pribatuko obrak. Azken xedea da eraikin zaharren egoera orokorra hobetzen laguntzea (estankotasuna, isolamendua, egitura sendotzea eta irisgarritasuna); hartara, udalerriko ondare eraikiaren egoera hobetzeko eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzeko.</p> <p data-bbox="231 1659 804 2029">Batik bat, Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleetako etxebizitzaren eraberritzea sustatu nahi da; izan ere, nagusiki egurrezko egiturak dituzte, eta duten konfigurazioaren ondorioz, zaila da irisgarritasuna bermatzen duten elementuak instalatzea. Horren ondorioz, bizitegi horietan bizi diren jabeak beste etxebizitza batzuetara joaten dira, beste konfort eta irisgarritasun estandar batzuk izateko. Horren guztiaren</p>	<p data-bbox="826 461 1399 495"><b>1. Objeto</b></p> <p data-bbox="826 501 1399 1070">El objeto de la presente convocatoria es dar a conocer las subvenciones, en régimen de concurrencia no competitiva, destinadas a subvencionar <b>obras ya ejecutadas de rehabilitación, consolidación o mejora de la accesibilidad de edificios residenciales colectivos</b> (no viviendas unifamiliares o bifamiliares y adosados), así como la <b>adecuación de viviendas</b>, en suelo urbano de Tolosa, llevadas a cabo por las comunidades de propietarios/as legalmente constituidas y las personas físicas, sean propietarias, usufructuarias o arrendatarias, o por cualquier otro título de disfrute sobre la vivienda.</p> <p data-bbox="826 1122 1399 1608">La finalidad de la subvención es ayudar económicamente las obras realizadas de promoción privada de rehabilitación, incluidas las de instalación de ascensor, en las edificaciones residenciales sitas en el suelo urbano del municipio de Tolosa. El fin último es potenciar la mejora del estado general de los edificios antiguos (estanqueidad, aislamiento, consolidación estructural y accesibilidad), redundando en la mejora del patrimonio edificado del municipio y en la mejora de las condiciones de habitabilidad de las viviendas.</p> <p data-bbox="826 1659 1399 2029">Se pretende, especialmente, fomentar la rehabilitación de los edificios tanto del Casco Histórico como de Euskal Herria plaza y las calles adyacentes, los cuales cuentan principalmente con estructuras de madera y tienen una configuración que dificulta la instalación de elementos que garanticen la accesibilidad. Ello tiene como consecuencia, que las personas propietarias de dichos edificios opten por otras viviendas que</p>



ondorioz, adierazitako eremuetako etxebizitzak ez dituzte etxebizitzak mantentzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren inbertsioak egiten, eta horrexegatik, desio ez den narriadura sortzen da eraikin horietan.

Hala, sei dirulaguntza-lerro eskaintzen dira:

- Elementu komunetan egindako obrak:

1. lerroa	Irigarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak.
2. lerroa	Inguratzailearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua eta/edo fatxada eraberritzea).
3. lerroa	Egitura sendotzea.
4. lerroa	Katalogatutako eraikinen inguratzailea eta fatxadako elementuak hobetzea.

- Elementu pribatiboetan egindako obrak:

5. lerroa	Kanpoko arotzeria aldatzea (Eraikinen Kode Teknikoa kontuan izanda).
6. lerroa	Mugikortasun mugatua duten pertsonen eta 65 urtetik gorakoen etxebizitzak egokitzea.

**2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida**

Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa HIRUREHUN MILA (300.000,00) EURO, Tolosako Udalaren

cuentan con otros estándares de confort y accesibilidad, todo lo cual deriva en que los propietarios de las viviendas de los ámbitos señalados no realicen inversiones necesarias en el mantenimiento y conservación de los edificios, lo que lleva a una degradación no deseada de dichas edificaciones.

Así, se ofrecen seis líneas subvencionables:

- Las obras relativas a elementos comunes:

Línea 1	Instalaciones y obras para la mejora de la accesibilidad.
Línea 2	Mejora de la eficiencia energética en la envolvente (rehabilitación de cubierta y/o fachada).
Línea 3	Consolidación de la estructura.
Línea 4	Mejora de la envolvente y los elementos de fachada de edificios catalogados.

- Las obras relativas a elementos privativos:

Línea 5.	Modificación de la carpintería exterior (según Código Técnico de Edificación).
Línea 6.	Adecuación de las viviendas de personas con movilidad reducida y mayores de 65 años.

**2. Crédito y partida presupuestaria a los que se imputa la subvención**

La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de TRESCIENTOS MIL (300.000,00) EUROS,



<p>Aurrekontu Orokorren partida hauen kargura: 0600.780.01.152.20 (2024).</p>	<p>con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Tolosa: 0600.780.01.152.20 (2024).</p>
<p><b>3. Pertsona/erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua</b></p> <p>Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 6. artikuluan xedaturikoa izango da.</p>	<p><b>3. Requisitos que deben reunir las personas/entidades beneficiarias y forma de acreditarlos</b></p> <p>Será lo dispuesto en el artículo 6 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria.</p>
<p><b>4. Eskaerak aurkezteko epea.</b></p> <p>Eskaerak aurkezteko epea <b>2024ko azaroaren 15era arte</b> (egun hori barne), izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.</p>	<p><b>4. Plazo de presentación de solicitudes</b></p> <p>El plazo de presentación de solicitudes será <b>hasta el 15 de noviembre de 2024</b>, inclusive, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p>
<p><b>5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa</b></p> <p>Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 10. artikuluan xedaturikoa izango da.</p>	<p><b>5. Documentación que acompañar a la solicitud</b></p> <p>Será lo dispuesto en el artículo 10 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria.</p>
<p><b>6. Proiektuak egikaritzeko epea</b></p> <p>Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2023ko urriaren 16tik 2024ko urriaren 15era bitartean egingo dira.</p> <p>Jarduketaren amaiera-datatzat hartuko da obra-amaierako ziurtagiria jasotakoa, edo, halakorik ezean, azken fakturan emandakoa, betiere lehen aipatutako muga-daten artean datatuta.</p>	<p><b>6. Plazo de ejecución de los proyectos</b></p> <p>Las actuaciones objeto de subvención se realizarán entre el 16 de octubre de 2023 y el 15 de octubre de 2024.</p> <p>Se entenderá por fecha de finalización de la actuación la contenida en el certificado final de obra o, en su defecto, la emitida en la factura final, fechada entre las fechas límite antes señaladas.</p>
<p><b>7. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak</b></p> <p>Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.</p>	<p><b>7. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento</b></p> <p>La instrucción del procedimiento será promovida por el Área de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición Energética.</p>



<p>Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.</p> <p>Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.</p> <p>Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Kontu-hartzailea edo teknikaria.</li><li>- Saileko teknikaria.</li><li>- Saileko zinegotzia.</li><li>- Idazkaritza Saileko AOT bat.</li></ul> <p>Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.</p> <p>Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak ebatz dezan.</p>	<p>Corresponde a dicha área la valoración de las solicitudes mediante la emisión del correspondiente informe técnico.</p> <p>La propuesta de la concesión se elevará a la Comisión de Valoración para emitir su correspondiente informe.</p> <p>Dicha Comisión de Valoración estará compuesta por los/las siguientes integrantes, garantizándose una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su composición, salvo justificación en contrario:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- El/La Interventor/a o el técnico/a.</li><li>- El/La técnico del área.</li><li>- El/La concejal/a del área.</li><li>- Un/a TAG del Área de Secretaría.</li></ul> <p>El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, formulará la propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a los interesados en la forma que establezca la convocatoria, y se concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones.</p> <p>Posteriormente, para su resolución se dará traslado a Alcaldía, sin perjuicio de las delegaciones que pudiese efectuar.</p>
<p><b>8. Ebazteko eta jakinarazteko epea</b></p> <p>Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.</p> <p>Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.</p>	<p><b>8. Plazo de notificación y resolución</b></p> <p>El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p> <p>La resolución definitiva será notificada a las personas interesadas.</p>
<p><b>9. Ebazpenaren jakinarazpena</b></p> <p>Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.</p>	<p><b>9. Notificación de la resolución</b></p> <p>A la persona interesada se le notificará resolución.</p>
<p><b>10. Helegiteen araubidea</b></p>	<p><b>10. Régimen de recursos</b></p>



Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabete epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:

Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier momento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.